




ASOCIACIÓN ALAVESA
DE JUGADORES EN
REHABILITACIÓN
ERREABILITAZIOAN DIREN
ARABAKO JOKALARIEN ELKARTEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

» ARABAKO FORU ALDUNDIA



» DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA



kanpo

- 1 Artikulua
“Online Jokoak orain Espainian zergak ordaintzen hasteko lege bat onartu du gobernuak”
- 2 Elkarrizketa
“Fco. Javier Zuazo Pérez (Mediku-Psikiatra)”
- 3 Hiritarren erantzuna
- 4 Hiriko eta probintziako baliabideak
“Sakelako Telefonoa. Erabilera egoki baterako gida”
- 5 Balorazioak
“Hiruhileko onena eta txarrena”
- 6 Gomendioak
“Gomendatutako liburua eta DVDa”
- 7 Iritziak
“Iradokizuna edota iritzien postontzia”

Argitaratzailea: ASAJER. Erreabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkartea

Laguntzaileak: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia), Osasun eta Kontsumo Saila (Vitoria-Gasteizko Udala) eta Euskadiko Kutxa

Argazkiak: Asajer

Diseinua: ERDU

maketazioa: KOMUNIKA DIGITAL 2.0

Itzulpenak: Higan Itzulpen Zerbitzuak

Inprimatzailea: Vicuña Grafikoak

Lege-Gordailua: VI - 356 / 07

Online Jokoak orain Espainian zergak ordaintzen hasteko lege bat onartu du gobernuak

Ministro Kontseiluak otsailaren 4an Jokoaren lege-proiektua onartu zuen, Online Jokoa arautzeko eta orain arte zergarik ordaintzen ez zuen jarduera horrek zergak ordain ditzan.

Proiektu horretan hainbat berrikuntza barneratzen dira, esate baterako, online jokoei buruzko zerga berrietatik eratorritako finantzazioa autonomia erkidegoetara lagatzea. Autonomia Erkidego bakoitzak bertako lurraldetik apustu egiten duten erabiltzaileek sortutako zergak bilduko ditu, edozein delarik ere apustua egiteko erabiltzen duten web orrialdea (betiere, Espainian aritzeko lizentzia izan beharko du webgune horrek). Estatuak jasoko du Espainian aritzeko lizentzia duten Webgune horietan erabiltzaileek Espainiatik kanpo jokaturakoaren ondorioz sortutakoa.

Apustu-mota bakoitzak bere karga izango du, Kinielaren kasuan, jokalaria bakoitzak gastatzen duenaren %20a jaso duelarik. Kontrakontuko kirol-apustuak, Interneteko atarien bidez egiten direnak, %10eko zerga izango dute sarrera gordinen gainean eta apustu gurutzatuen kasuan, hots, online pokerean jokalaria batek beste baten aurka egiten duen apustuaren kasuan, sarrera garbien %10 bereganatuko du Estatuak. Erifen kasuan, %30eko zerga izango da sarrera gordinen gainean eta, lehiaketetan %20 sarrera gordinen gainean.

Presentziazko jokoaren sektoreak aspaldi eskatu zuen halako araudi bat eta, azkenean, Gobernuak lege bat aurkeztu izana txalotzen du; dena den, urte hauetan online bidezko Apustu Etxeek lortutako abantaila ezereztatzekeo neurriak hartu ez izana kritikatzan du, izan ere, urte hauetan Espainian ez dute zergarik ordaindu, ez zegoelako haiek arautzeko legerik.

Bereziki, kasino eta bingoek egiten duten beste kritika bat zera da, Estatuko Loteria eta Apustuen Entitateak (pribatizatu egingo dena) lege-proiektu horretan loteriaren negozioa salbuetsi izana. Horrenbestez, loteria hori ezingo du operadore pribatu batek antolatu. Halaber, Gobernuak idatzitako testuan loteria gisa har daitekeena eta halakotzat jo ez daitekeenari buruz nabari den zehaztugabetasuna kritikatzan dute.

Ludopatentzako babes-neurriak

Zerga berriak barneratzeaz gain, Jokoaren gaineko lege-proiektuan kolektibo zaugarrirentzako (esate baterako, adinez txikikoak edo ludopatia pairatzen duten pertsonak) neurriak ezartzen dira. Horrez gain, Jokoaren Batzorde Nazionala ezartzen da, sektorea gainbegiratzeaz arduratuko den organo modura.

Fco. Javier Zuazo Pérez Mediku-Psikiatra

Francisco Javier Zuazo Perez da nire izena eta mediku-psikiatra naiz; prestakuntza eklektikoa jaso dut, ezinbestean psikofarmakologiaren esparruan, aurretik oinarri psikodina miko bat jaso ondoren. 1991z geroztik Osakidetzako Arabako Osasun Mentaleko Sarean lan egiten dut.

1.- Nola hasi zinen lanean ludopatiaren esparruan?

Osasun Mentaleko Zentro batean aritu nintzen lanean 23 urtez eta 2009ko ekainetik Gasteizko Alkohlismo eta Ludopatiaren Zerbitzuko kidea naiz. Hala, 1994an lan-esparrua areagotu zutenetik (alkoholarekin lotutako arazoaren tratamenduan Ausazko jokoetatik eratokitako gaineratu zutela) dagoeneko ezamita duten jardute-eredu baten arabera lan egiten duen taldean barneratu nintzen. Hots, niretzat nahiko kontu berria da Ausazko jokoei lotutako patologien esparruan lan egitea.

2.-Zein korrante darabilzu ludopatiaren tratamenduan?

Egun nire Zerbitzuan lan egiten duen talde terapeutikoak teknika kognitibo eta portaerazkoak erabiltzen ditu: jardute-programa modura, estimuluaren kontrola eta berriz gaixotzearen gaineko prebentzioa, Enrique Echeburua Psikologia katedradunaren eta Contxi Baezen eskutik jasotako prestakuntzari jarraiki; nire lana Joko Patologikoaren lotura estua duten beste nahasmen psikologiko batzuk (antsietatea, depresioa, substantzia psikoasktiboaren mendekotasuna) balioetsi, diagnostikatu eta tratatzea da, familia-girora, laneko girora, arlo ekonomikora eta gizartera egokitze prozesuan pertsonak pairatzen dituen nahasmenuekin batera, non, hasiera batean, ebaluaziozko integrazio bat egon beharko lukeen.

3.- Zure ustez, badago Joko Patologikoa pairatzeko erraztasuna eragiten duten faktorerik?

Pertsonen izaera edo ezaugarriekin lotutako faktore batzuek hori ahalbidera dezakete: autoestimurik eza, auto-kontrolrik eza, emozionalki aurre egiteko arazoak, izaera bulkatsua, mendekotasuna sortzeko ezaugarriak (hau da, berehalako satisfazioa bilatzea, eta kanpoko akuilu baten premia), zenbaitetan beste mendekotasun batzuekin batera gertatzen direnak (alkohola), edo mendekotasun batetik bestera igarotzen direnak (mendekotasun gurutzatuak); agian bipolaratasuna ere izan daiteke beste faktore bat, hau da, gogo-aldartearen aldaketa bortitza eta erabatekoak jasatea, edo depresioaren asaldura bortitza izatea. Halaber, faktore aipagarriak izan daitezke bakartasuna, trebetasun sozialik ez izatea edo asebetetzeko beste bide batzuk topatzeko zailtasuna izatea edota harreman-pertsonal garrantzitsuak galtzea.

Nolanahi ere, nire ustez, jokoa barneko zenbait portaerak interesatuak dituen pertsonen arteko bizi-proiektua ariskuan jartzea, jokatzeko, dakarte, pentsatu gabe, baina era inkontzientearen guztia galtzeko ariskua. Orduan horrek depresioarekin izango luke lotura, eta baita zentzurik ezarekin ere, benetako bizi-proiekturik ez izatearekin, horrenbestez, ezerk ez du lehentasunik jokoa arekiko mendekotasunaren aurrean (ondorio ekiko arduragabekeria agertuz).



Fco. Javier Zuazo Pérez

Mediku-Psikiatra
Osakidetzako Arabako
Osasun Mentaleko
Sarean.

4 eta 5. - Ba al dago Joko Patologikoarekin lotutako nahasmendu aruntik? Nola jorratzen da nahasmendu psikiatriko bat edo bestelako mendekotasunen bat pairatzen duen eta, aldi berean, ludopatiak eragindako persona baten egoera?

Dagoeneko azaldu dudana z gain: ez dut uste ohi ohikoa denik, baina alkoholismoa edo eskizofrenia tarte an denean, berehala aurre egin behar zaio; eta teknika espezifikoak erabiliz lortutako emaitzak ez dira horren asebetegariak izaten.

Hau da, nahasmendu psikiatriko lami bat egonez gero, are, ludopatiaren portaera baino lehenagokoa dena, garbi dago pertsona hori tratatu egin behar dela, eta bere egoera egonkortsu behinik behin; are, mendekotasuna patologia nagusiaren beste sintoma bat gehiago ez ote den edo beste asaldura bat ote den balioetsi beharko litzateke.

Halaber, alkoholaren kontsumoa tarte an denean, aurrez abinentzia bilatu behar da, izan ere, edariak sorrarazten duen desinhibizioak jokatzera bultzatzen du, eta neurri gabe jokatzera gainera.

6.- Badago ludopatiaren tratamenduan lagungari den sendagairik?

Ludopatia ez da farmakoekin zuzenean sendatzen, noski, baina farmazia-terapia erabiltzea ezinbestekoa bada, helburu hauek betetzeko da: harekin lotuta eman daitezke en bulka da patologikoa, antsietatea, depresioa eta suminkortasuna etetea eta, baita bestelako mendekotasun-kide batzuk ere, baleude.

7.-Zein da Alkoholismo eta Ludopatiaren Zerbitzura jokoarekin arazoak izate agatik jotzen duen pertsonaren profila?

Hauek lirateke gure Zerbitzuan iaz ukan genituen datuak: %88 gizonezkoak ziren, batez beste 40 urtekoak, Lehen Mailako Arretatik eratomiak %33, eta beste osasun mentaleko zentro batzuetatik etomiak %26; gehienek ikasketa-maila apal edo ertainekoak (%67) eta, era berean, gehienak ezkongabeak (%63); orokorrean, lan-egoera aktiboa zeudenak (%56), subsidioa jasotzen duten langabetuak (%23) eta subsidiorik gabekoak (%11).

Horietako batzuk (zazpiren batek) dagoeneko osasun mental larriekin lotutako arazo en gaineko jarraipena zuten. Orobat, laurdena, “bere kabuz” etorri da, joko an berriz erortze agatik. Eta, bestelako kontsumo edo mendekotasunei dagokionez, gutxi batzuek kontzientziarazteko eta usadioak aldatzeko kontsultak behar izaten dituzte.

8.-Zein iritzi duzu jokoaren mendekotasuna pairatzen duten pertsonen laguntzen dien ASAJER bezalako elkarte en inguruan?

Positiboki balioesten dut laguntza izateko para da hori; zenbait laguntza gehigami izan ditzakete, besteak beste, familia ikuspuntutik, informazioari dagokionez, talde an landuz edota bestelako ordutegi batzuekiko batera garitasun agatik. Berez, gure Zerbitzuan ASAJER elkartearen berriz izaten eta harekin harremanetan jartzen saiatzen gara.

Horrez gain, prebentzioari, teknologia berrien erabilketa gaineko aholkuei eta haie en erabilerei dagokionez ekintza-esparru egokia du. Orobat, gure Zerbitzuak ez dituen bestelako aukera batzuk eskaintzen ditu: auto-laguntza taldeak, terapia-taldeak, bezero ohien taldeak.

erantzuna

1. Ludopatiak sexu edo adinarekin zerikusia duela uste duzu? Zeintzuekin?
2. Ludopatia gizarte-klase jakin bati eragiten dion arazoa da?
3. Zure ustez, bada jokoarekin arriskuak izateko arrisku berezia duen kolektiborik?
4. Zure ustez, ludopatek bestelako mendekotasun batzuk ere izaten dituzte?

Emakumea, 36 urte:

1. Uste dut guztiei berdin eragiten diela, beno, agian neska gazteei gutxiago.
2. Orokorrean ez, baina diru gutxiago duenari gehiago eragiten dio. Halaber, jokatzeko duten jokoaren baitan ere bada. Makina txanponjaleak, apika, klase ertain edo beheko klasearekin lotzen dira eta online bidezko jokoak goiko klasearekin.
3. Etorkinak, izan ere, askotan ikusten ditut jokatzeko eta dirua eraz lortzeko baliabide modura ikusten dute.
4. Ludopatiatik eratorritako arazoaren erruz, droga eta alkoholarekin ere arazoak izan ditzakete.

Gizonezkoa, 20 urte:

1. Bai, 40 urte edo gehiago dituen gizonezkoa.
2. Bai, estatus sozial eta ekonomiko apala duenari.
3. Bai, baliabide ekonomiko gutxi dituen jendearena.
4. Bai, batez ere, alkohola, izan ere, alkohola ere eskaintzen den lekuetan kokatzen dira, orokorrean tabernetan.

Emakumea, 47 urte:

1. Bai, gizonezko helduak.
2. Ez dute uste, gizarte-klase bakoitzak jokatzeko duen kopuruan eta jokoan hasteko arazoian dago ezberdintasuna.
3. Bai, gazte jendea, izan ere, jokatzeko aukerak gero eta ugariagoak dira.
4. Litekeena da, eta alkoholaren kasuan hala dela uste dut, baina ez dut uste kasu guztietan ematen den zerbaite denik.

hiriko eta probintziakoak

SAKELAKO TELEFONOA. ERABILERA EGOKI BATERAKO GIDA

Telefono mugikorra behar bezala erabiltzeko gazteei zuzendutako ASAJER elkartearen gida. Alderdi hauek joratzen dira: gailu hauei ematen diegun erabilera, erabilera oker edo gehiegizkoak duen arriskua, erabilpenerako aholkuak, sexting, cyberbullying, etab.



Hiruhila betekaria

ERREABILITAZIOAN DIREN ARABAKO
JOKALARIEN ELKARTEA

Hiru hileko onena

2010eko urriaren 4an jokoarekin arazoak dituzten pertsonen senitartekoei zuzenduta garatu zen ludopatiari buruzko informaziozko mintegiaren ondoren, ezinbestekotzat jo da familiek bere espazioa izatea beren bizipenak, esperientziak, beldurrak, zalantzak eta ezinegonak beste familia batzuekin parteka ditzaten, maite dituztenei minik egin gabe. Halaber, dituzten galderen erantzunak behar dituzte eta egunero topatzen dituzten arazoei aurre egiteko konponbideak.

Hiruhileko honetan zehar 3 bilera burutu dira, ordu eta erdiko iraupena izan dutenak.

Familia horientzat taldeko laguntzak duen garrantzia eta parte hartzeko eta aurrera egiteko guztiek erakutsi duten gogoia nabarmendu behar dira.

Hiru hileko txarrena

Besteak beste, hedabideetan eta kirol-ekitaldietan gaur egun ausazko jokoei (batez ere, estatuko jokoak, esate baterako, loteria) eta apustu etxeei (online bidezko apustuak, Apustu Etxeak) buruzko publizitatea areagotu egin da. Modu horretan, jokoa bultzatzen da eta, agian, horrek azal dezake ASAJER elkartera laguntza eske jotzen duten pertsona gazteen kopurua areagotu izana.

gomendatutako
liburua

CUANDO JUGAR ENFERMA

Egilea: Liliana Bava
Argitaratzailea: Lumiere
Edizio zenbakia: 1ª
Edizio urtea: 2004

Liburu honetan "apustu-jokoen" arazoa jorratzen da ikuspegi negatibo batetik: ez da soilik neurririk gabe apustu egitea, diru-sarrera eta ondasunak (berezkoak eta besteak) arriskuan jarri; kontrolik eza, sosegurik eza eta zailtasun psiko-existentziala jokoan jartzea ere bada, guztia arriskatuz, baita norbere bizitzaren zentzua ere.


gomendatutako
dvd a


LUCKY YOU

Zuzendaria: Curtis Hanson
Herrialdea: USA Urtea: 2004
Iraupena: 124 min.
Generoa: Drama

Aktore-zerrenda: Eric Bana (Huck Cheever), Drew Barrymore (Billie Offer), Robert Duvall (L.C. Cheever), Debra Messing (Suzanne Offer), Horatio Sanz (Ready Eddie), Jean Smart (Michelle Carson), Charles Martin Smith (Roy Durucher), Saverio Guerra (Lester).

Huck Cheever (Eric Bana) poker-jokalari profesionala da, beti guztia jokatzeko duena. Hala ere, bere harreman pertsonaletan oso zuhura da, aditua da konpromiso emozionalak eta epe luzeko iguripenak saihesten. 2003ko Pokerreko Munduko Serietako ekitaldi nagusia irabazteko aurkeztzen denean, Billie Offer (Drew Barrymore) kantari gaztearen maitasuna eskuratzen saiatzen den bitartean, oztopo handi bat topatzen du bidean: bere aita, L.C. Cheever (Robert Duvall), duela urte asko Hucken ama abandonatu zuen pokerreko mitoa.

Ira d okizuna

edota iritzien

postontzia

FAMILIA-TALDEAK

Ludopatiak eragindako senitarteko guztioi ASAJER elkarte an hilerio egiten diren bileretara bertaratzea animatzen zaituztegu, zuek ere, arazoa bizitzen ari zaretenez, zuen zalantzak edota beldurrak azaldu ahalizateko espazio bat izan dezazuen eta egoera berean dauden beste pertsona batzuekin parteka ditzazuen. Modu horretan, elkarren artean ikasi ahalizango duzue egunero gaixotasun hori nola kudeatu.

APROBETXATU SENITARTEKOEI
ZUZENDUTAKO ESPAZIO HAU!



*Animatu
eta idatzi!*

